

FITXA: 200 – GIPUZKOA - Dirulaguntza hauen oinarri arautzai eak eta 2026ko deialdia: udalei eta hondakinak kudeatzen dituzten mankomunitateei zuzendutakoak, sakabanatutako zaborren pilaketa fokuak prebenitzen eta zuzentzen lagunduko duten jarduketak egiteko.

Nori zuzendua:

— Udalak.

— Hondakinak kudeatzen dituzten mankomunitateak edo, hala badagokio, horien mendeko sozietate instrumentalak.

Deialdia: GAO - Gipuzkoako Aldizkari **Deialdiaren data:** 2026/02/27
Oficiala

Sarbide-esteka:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/hasiera>

Erreferentziazko araudia: 2026ko otsailaren 10ko erabakia -
<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/02/27/c2601202.pdf>

Eragin eremuak: Ingurumena

Zenbatekoa: 125.000,00 €

Aurkezteko lehen eguna: 2026/02/28

Aurkezteko azken eguna: 2026/03/27

Aurrerakina: Ez da zehaztu

Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: Ezin izango da izan diruz lagungarriak diren gastuen % 75 baino handiagoa, ezta 35.000 euro baino andiagoa. Onuradun bakoi tze ko, gehienez, bi eskabide lagunduko dira diruz.

Gutxieneko zenbatekoa: Ez dira dirulaguntza deialdi honetan sartuko kostu lagungarria 3.000 euro (BEZik gabe) baino txikiagoa daukaten jarduerak, salbu eta dirulaguntzaren eskatzailea 5.000 biztanletik beherako udalerri bat bada.

Laburpena

Sakabanatutako zaborrak metatzeko fokuak prebenitzen eta zuzentzen lagunduko duten jarduketak gauzatzea.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

a) Itsasertzeko, ibaietako eta lehorreko espazioetan sakabanatuta dauden zaborren pilaketa fokuak garbi tzea.

Lehorreko pilaketa fokuak garbitzeko jarduerekin batera, etorkizunean egin ahalko liratekeen isuriei aurre egiteko prebentzio neurriak ezarri beharko dira, hala nola itxiturak, disuasio-elementuak edo kartelak.

b) Lurpeko espazioetan (kobazuloak, leizeak, etab.) dauden zaborren pilaketa fokuak garbi tzea.

Lurpeko pilaketa fokuak garbitzeko jarduerekin batera, etorkizunean egin ahalko liratekeen isuriei aurre egiteko prebentzio neurriak ezarri beharko dira, hala nola itxiturak, disuasio-elementuak edo kartelak.

c) Zaborrak kontrolik gabe ez isurtzeko edo horiek ibai-ingurura ez iristeko elementuak jartzea.

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Oinarri hauen ondorioetarako, jarduera diruz lagunduarekin zalantzarik gabe bat datozenak dira gastu diruz lagungarriak. Diruz lagundutako elementuen erosketa kostua ezin daiteke inoiz merkatuko balioa baino handiagoa izan.

Gastuetarako aldi hautagarria

Diru-laguntza ordaintzeko, laguntzaren oinarri den jarduketa egin beharko da, eta ordainketa bakarrean egingo da, diru-laguntzaren zenbateko osoarekin. Horretarako, deialdiaren urteko urriaren 31 baino lehen, hurrengo idatz-zatian zehazten diren frogagiriak aurkeztu beharko dira.